



AGUSTINAK ZENTROKO ESPAZIOAK ERABILTZEKO ARAUDIA

AURREKARIAK

Agustinak Zentroa

Agustinak Zentroa Erretereriako Agustinak auzoan dagoen espazioa da, kulturaren eta sormenaren arloan jarduera ekonomikoa sortzen duten proiektuetarako ekipamendu garrantzitsua izanez.

Agustinak Zentroa Erretereriako Udalaren jabetzakoa da. OARSOALDEAK eraikinaren erabilera eta kudeaketa lagata dauka, aurreko puntuan azaldutako erabilerarako.

Eremu publiko eta dinamikoa da, eta KSl-en esparruan jarduera ekonomikoa sortzen duten proiektuak bultzatuko dira. Sorkuntza- eta lankidetzagune horretan, proiektuei beharrezko baliabideak eta lehiakortasuna indartuko duen ekosistema sendo bat emango zaizkie, eta KSlak ahalduztzeko eta horien balioa nabarmentzeko zentro bultzatzailea izango da, haien aintzatespenerako eta oparotasunerako ingurune egokia sortuz, bai maila sozialean, kulturean, bai ekonomikoan.

Ekipamendu zabala da, espazioetan erabilera eta jarduera desberdinak ahalbidetuko dituzten elementu eta egitura malguekin diseinaturik. Malgutasun eta aldakortasun hori gune berri honen izaeraren parte izango da, sektoreak eskatzen dituen beharretara egokitu ahal izateko.

Erabiltzaileentzako eta bisitarientzako gune atsegina eta eroso da. Pertsonak eta enpresak tailerretan lan egitera, prestakuntza jasotzera, topaketa profesionaletan eta beren jarduerarako eta/edo proiekturako interesgarriak izan daitezkeen ekitaldietan egoteko aukerarekin.

Hainbat lan-arlo izango ditu:

- Prestakuntzarako guneak
- Bilerak egiteko guneak
- Topaketak egiteko guneak
- Ekitaldietarako espazioak
- Makineriaz, ekipamenduz eta altzariz hornitutako lan-tailerrak



Agustinak Zentroko jarduerak

Agustinak Zentroaren jarduera-programa hiru ardatzetan egituratuko da:

1. Lehiakortasuna hobetzeko programak:

- KSlen eremuko pertsoneri edo enpresei orientazioa eta laguntza emateko informazio-puntu bat izatea. Baliabideen eskuragarritasuna azkartu nahi da, laguntza bilatzen duten pertsonak erakundeetara edota eragileetara eraginkortasunez bideratzen direla bermatuz.
- Ekintzailtza-programak: KSlen sektorean ekintzailtza-ibilbidean proiektuak sustatzea eta bultzatzea du helburu, baliabideak emanez, gaitasunak indartuz, proiektuen kalitatea hobetuz eta kultura- eta sormen-berrikuntza sustatuz.
- Inkubazio-programa: ekintzaileei eta enpresa berriei laguntzeko eta baliabideak emateko programa, garapenaren hasierako etapetan. Inkubagailuaren helburu nagusia hasten ari diren enpresen hazkundea eta arrakasta sustatzea da, zerbitzu eta baliabide desberdinetarako sarbidea erraztuz.
- Azelerazio-programa: Ekintzailtza edo proiektuen garapen eraginkorra bultzatzea. Mentoría, finantzaketa-iturrietarako sarbidea, lan-espazioa, enpresa-konexioak bezalako baliabideak eskainiko dira, denbora epe kontzentratu batean, parte hartzen duten enpresen aurrerabidean, hazkundean eta ahalduztzean eragiteko, eta epe laburrago batean mugarri esanguratsuak lortzeko aukera emanez, modu independentean jardungo balute baino.
- Sendotze-programak: enpresen egoera diagnostikatzea, lan-plan bat egitea, enpresaren epe ertain eta luzerako helburuak eta jarduerak definitzeko eta lan-plana ezartzeko balizko laguntza-programei eta dirulaguntzei buruzko orientazioa ematea.



2. **Prestakuntza:** jarduera ekonomiko baterako beharrezkoak diren gaitasunak indartzea: kudeaketan, komunikazioan, ekoizpenean, etab.
3. **Topaketa profesionalak eta ekitaldiak:** topaketa-ekitaldiak, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko eta eremu espezifiko bat partekatzen duten pertsonen kontaktu-sareak ezartzea. Topaketa horiek era askotakoak izan daitezke, hala nola hitzaldiak, mintegiak, azoka komertzialak, sinposioak edo kongresuak, eta gaikuntzarako, pertsona gaituei buruzko eztabaidarako, ikerketen aurkezpenerako, produktu eta zerbitzuen erakusketarako eta sektore bereko profesionalen arteko konexiorako aukerak eskainiko dituztenak.
4. Kulturaren eta sormenaren arloan jarduera ekonomikoa sortzeko etorkizunean antolatzen diren beste edozein programa.

ERABILERA MOTAK

- **Pertsona/enpresa egoiliarra:** zentroak definitutako programetan parte hartzen duena, hala nola inkubazio-programetan, azelerazio-programetan edo kulturaren eta sormenaren eremuan jarduera ekonomikoa sortzeko antolatzen diren beste edozein programatan, eta horregatik, araudi honetan definitutako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea duena.
- **Elkarte egoiliarra:** KSI sektoreari lotutako trakzio-elkartea, OARSOALDEA SArekin lankidetzat hitzarmena sinatu eta AGUSTINAK ZENTROAren bidez bere sektorerako jarduera sortzeko konpromisoak hartu dituen, hitzarmen horretan ezarritako baldintzen arabera arautuko da.
- **Aretoen eta espazioen erabilera:** KSLei lotutako hainbat jarduera gauzatzeko instalazio espezifikoetarako aldi baterako sarbidea ematea. Instalazio horietan sartzen dira Langunea 1, Langunea 2, Erabilera Anitzeko Aretoa 1 eta Erabilera Anitzeko Aretoa 2 izeneko espazioak, pertsonak, enpresek edo erakundeek erabil ditzaten.



ZERBITZUEN GUTUNA

Zerbitzu Orokorrak

- Lan-espazioa.
- Altzariak, instalazioak eta oinarrizko makineria partekatua.
- Makineriaren mantentze-lanak.
- Interneterako eta WIFirako sarbidea.
- Inprimagailua (normala eskanerrarekin).
- Elektrizitatearen hornidura, ura, hondakinen bilketa.
- Eraikina eta instalazioak garbitzea.
- Langunea 1, Langunea 2, Langunea 3, Langunea 4, Erabilera Anitzeko Aretoa 1 eta Erabilera Anitzeko Aretoa 2 espazioen erabilera, baita elkartzeko eta erlaxatzeko espazioak ere.
- Armairuak.
- Komunak.

Adituen zerbitzuak

- Enpresa indibidualaren kudeaketari buruzko aholkularitza.
- COWORKERrek eskura jarritako eta kudeatutako erakusketa-espazioa.
- Dinamizazio-ekitaldiak edo -jarduerak antolatzea.
- Egonaldia amaitu ondoren behin betiko instalazio bat lortzeko laguntza.
- Lotura udalerriko beste baliabide batzuekin (Jantziaren Zentroa, Lekuona, Merkatuzar...) edo proiektuari lotutako beste batzuekin (Tknika, Don Bosco...).
- Proiektuarekin lotutako beste baliabide batzuekiko lotura (LHko prestakuntza-zentroak eta unibertsitatea).
- KSI sektoreko trakzio-elkarteekiko lotura.
- Eskualdeko enpresekiko lotura.

LANPOSTUAK

1-OARSOALDEAk coworking-zerbitzuak emango dizkio COWORKERari, hau da, AGUSTINAKen lanpostu kopuru jakin bat jarriko du eskuragarri, araudi honetan jasotzen diren zerbitzuez gain, araudi honetan ezarritako baldintzetan.



2.- AGUSTINAK ZENTROAn lantoki bat COWORKERen eskura jartzea “Lanpostua” kontzeptutzat ulertzen da. Lantokia mahai eta aulki banaz osatuta dago, erregelamendu honetan jasotzen diren zerbitzuekin bat datorren gela batean dagoena.

3.- AGUSTINAK ZENTROAn dagoen lanpostua zentroak ezarritako ordutegien eta egunen barruan erabiliko da, kontratuaren indarraldi osoan. Aurrekoa gorabehera, zentroak lanpostuak ordutegi eta egun horietatik kanpo erabiltzeko aukera emango duten formulak eta baldintzak aztertu ahal izango ditu.

4.- COWORKERek lanpostu zehatza erabiltzea AGUSTINAK ZENTROAren okupazio mailaren arabera izango da, eta COWORKERek lan egin nahi duen lanpostua OARSOALDEAK adierazitako lanpostu libreen artean aukeratu ahal izango du.

5.- Araudi honetan berariaz zehazten ez den beste edozein zerbitzu kontratuan sartzen ez dela ulertuko da, eta zentroko zuzendaritzarekin negoziatu beharko da, zerbitzu hori eman dezan.

6.- OARSOALDEAK beretzat gordetzen du COWORKEReko lanpostua aldatzeko eskubidea, antolamendu-, bizikidetz-, matxura-, erreforma- edo bestelako arrazoiak direla-eta egoki irizten badio, eta pertsona horri uneoro lanpostu egoki bat bermatuko dio. Aldaketa, gutxienez 15 egun lehenago jakinarazi beharko da, premiazko kausarik ez badago.

PREZIOAK

1.- COWORKERek hileko aldika ordainduko du, banku-helbideratzearen bidez, hileko lehen hamar egun naturalen barruan hitzartutako prezioen arabera, eta COWORKERek prezio horiek ezagutzen eta onartzen dituela adierazita.

2.- Ezarritako prezioei unean indarrean dagoen BEZa gehitu beharko zaie.

3.- OARSOALDEAK beretzat gordetzen du kontratua indarrean dagoen bitartean prezioen karta aldatzeko eskubidea, baldin eta kontratatutako zerbitzuen prezioa nabarmen aldatzen bada OARSOALDEAREKIN zerikusirik ez duten merkatu-arrazoiengatik.



1. solairuko tailerra			
Postu kop.	1. urtea	2. urtea	3. urtea
1	175,17	204,36	233,56
2	278,09	324,43	370,79
3	381,00	444,49	508,00
4	483,92	564,56	645,23

2. solairuko tailerra			
Postu kop.	1. urtea	2. urtea	3. urtea
1	93,42	112,11	130,79
2	148,31	177,50	207,87
3	203,19	244,07	284,94
4	258,08	309,46	362,01
5	312,97	376,03	437,92
6	367,85	441,42	514,99
7	422,74	507,99	592,07
8	477,62	573,38	669,14
9	532,51	639,95	746,21
10	588,56	705,34	823,29

LANGUNEA 1	Tarifa
2 ordu	21,90
4 ordu	43,80
6 ordu	65,70
8 ordu	87,60



LANGUNEA 2	Tarifa
2 ordu	26,54
4 ordu	53,08
6 ordu	79,63
8 ordu	106,17

ERABILERA ANITZEKO ARETOA 1	Tarifa
2 ordu	51,60
4 ordu	103,20
6 ordu	154,80
8 ordu	206,40

ERABILERA ANITZEKO ARETOA 2	Tarifa
2 ordu	40,04
4 ordu	80,09
6 ordu	120,13
8 ordu	160,18

URTEKO ABONUA	300,00
---------------	--------

Urteko abonu-tarifak honako gune hauek erabiltzeko eskubidea ematen du: Langunea 1, Langunea 2, Erabilera Anitzeko Aretoa 1 eta Erabilera Anitzeko Aretoa 2, **betiere eskatutako egun eta orduetan erabiltzeko moduan badaude.**

COWORKERen kasuan, alokairu-prezioan sartzen da Langunea 1, Langunea 2, Erabilera Anitzeko Aretoa 1 eta Erabilera Anitzeko Aretoa 2 guneen erabilera, topaketa eta erlaxatzeko espazioez gain.



KONTRATUA

1.- Eskaera-inprimakia ezinbesteko baldintza da espazioak erabili ahal izateko. OARSOALDEAK eskaera onartzea ebazpen baten bidez formalizatuko da. Ebazpen horretan alokairuaren baldintzak zehaztuko dira, besteak beste, epea, fidantza eta beste edozein alderdi garrantzitsu.

2.- OARSOALDEAK coworking-zerbitzuaren eskaera onartzeko ebazpenak berekin ekarriko du eskatzailearekin egindako coworking-kontratua burutzea. Kontratu hori erregelamendu honetan xedatutakoaren eta onarpen-ebazpenean ezartzen diren baldintza berezien arabera arautuko da.

IRAUPENA

1.- Kontratuak indarrean jarriko dira OARSOALDEAREN aldeko ebazpena jaso ondoren eta ebazpen horretan ezarritako hasiera-egunean.

2.- Kontratuaren iraupena OARSOALDEAK emandako ebazpenean ezarritakoa izango da.

3.- Kontratua sinatu eta lehenengo bi hilabeteak igaro ondoren, COWORKERek amaitu aurretik ebatzi ahal izango du, betiere OARSOALDEARI ebazteko asmoa gutxienez 15 egun lehenago jakinarazten badio. Lanpostua eta instalazioak egoera onean utzi beharko ditu, eta ezin izango zaio errentarik eskatu, lanpostua libre eta OARSOALDEAREN eskura jartzen den unetik itundutako epea amaitu arte.

4- Kontratua luzatu ahal izango da, aldeek hala adosten badute berariaz, ebazpenean ezarritako iraupenetik harago. Nolanahi ere, OARSOALDEAK kontratu hau luzatu aurretik jakinaraziko dio COWORKERi hurrengo urterako aplikatu beharreko prezioen taula.

BERMEA

COWORKERek, kontratua burututakoan eta ebazpenean ezarritako hasiera-datan, bi hilabeteko alokairuari dagokion zenbatekoa emango diote OARSOALDEARI, kontratuaren xede diren zerbitzuak ematearen ondorioz sortzen diren betebeharrak eta erantzukizunak beteko direla bermatzeko. Kontratua amaitzen den unean, zenbateko hori COWORKERi itzuliko zaio, COWORKERek egindako gastu guztiak likidatu ondoren.



JARDUERETAN PARTE HARTZEA

COWORKERek konpromisoa hartzen du OARSOALDEAK proposatzen dizkion jardueretan parte hartzeko (jardunaldiak, tailerrak, prestakuntza, topaketak, etab.), eta partaidetza horren helburua eskualdeko eta Gipuzkoako lurraldeko ekintzailatza ekosistema eta garatzen ari den proiektua aberastea eta garatzea da.

TUTORETZAK

Inkubazio- eta azelerazio-programetan parte hartzen duen COWORKERek esleitutako tutorearen jarraibideak bete beharko ditu, bere proiektua behar bezala garatzeko metodologiari, dedikazioari, helburuei, ezarritako mugarriei eta egokitzen jotzen den beste edozein alderdiri dagokienez.

FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

Zentroaren funtzionamendu ona, bizikidetzat normala eta pertsona eta instalazioekiko errespetua bermatzen jarraitzeko, hemen jasotako arauak nahitaez bete beharko dituzte AGUSTINAK ZENTROko COWORKERek. Horiek onartzea ezinbesteko baldintza da instalazioak erabiltzeko.

1.- Ordutegiak.

- 1.1. Zentrorako ezarritako ordutegia 7:00etatik 21:00etara da, astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik.
- 1.2. Aurreikusitako ordutegia zentroko zuzendaritzak aldatu ahal izango du, eta aldaketa horren berri behar bezala emango da.
- 1.3. Asteburuetan eta jaiegunetan zentroa itxita egongo da, eta zentroko zuzendaritzaren baimenarekin bakarrik sartu ahal izango da bertara.
- 1.4. Ezarritako ordutegitik edo alditik kanpo ezin izango zaio inori aretora sartzen utziko, zentroko zuzendaritzak baimena eman ezean.



2.- Agustinak Zentrorako sarbidea.

2.1.- Aretoak erabili aurretik, COWORKERek zentroko arduradunen eskuetatik jaso beharko dituzte sarrera-giltzak.

2.2.- Kontratua amaitutakoan, COWORKERek zentroko arduradunei ere itzuli beharko diete sarrera-giltzak.

3.- Baimendu gabeko jarduerak.

3.1.- Agustinak Zentroan ezin izango da jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsurik burutu.

3.2.- OARSOALDEAK egokitzen jotzen dituen egiaztapenak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, atal honetan ezarritakoa zorrotz betetzen dela egiaztatzeko.

4.- Sarbidea ukatzea.

Coworking-zerbitzua denez, ezin izango da sartu higienezko edo norberaren garbitasunari, portaerari, errespetuari eta abarri buruzko arau konbentzionalak errespetatzen ez dituen erabiltzailerik.

5.- Kanpoko bisitak eta animaliak.

5.1.- Kanpoko bisitak (kolaboratzaileak, enpresa hornitzaileak, etab.) zentroko zuzendaritzari jakinarazi beharko zaizkio eta identifikatu egin beharko dira, eta ez dute gainerako erabiltzaileen eta COWORKERen lana oztopatu edo etengo. Beraz, kanpo bisitek espazio komunak edo horretarako prestatutako lekuak erabili beharko dituzte.

5.2.- Erabat debekatuta dago Zentroan edozein animalia sartzea, ez normalean, ez noizean behin, desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko laguntza-txakurrekin izan ezik.



6.- Segurtasun-neurriak. Zaintza.

6.1.- COWORKERek arduraz eta segurtasunez erabili behar dituzte beren lanpostuak, eta saihestu egin behar dute, lanpostuan ez dauden bitartean, beren dokumentuak eta datuak gainerako COWORKERentzat, Zentroko langileentzat edo gonbidatuentzat eskuragarri egotea.

6.2.- OARSOALDEAK eskubidea izango du, aplikagarria den ordenamendu juridikoaren arabera, egoki iritzitako segurtasun-neurri osagarri guztiak hartzeko, zentroan ondasunen eta pertsonen segurtasuna une oro bermatzeko.

7.- Korrespondentzia jasotzeko zerbitzua.

7.1.- COWORKERek eskubidea dute Agustinak Zentroaren posta-helbidea erabiltzea korrespondentzia jasotzeko.

7.2.- OARSOALDEAKo langileek zentroko COWORKERei zuzendutako dokumentuak, gutunak, gutun-azalak, paketeak edo bestelakorik jaso aurretik, COWORKERek berariaz eta oro har eskatu beharko dute, eta OARSOALDEAK ez du inolako erantzukizunik izango, eta ez da jasotako ondasunaren baldintzen, edukiaren edo legezkotasunaren erantzule izango. Bakarrik hartzaile berezi gisa jardungo du benetako hartzailearen izenean.

8.- Zebtroan ekipamendu gehigarria instalatzea.

8.1.- Zentroan jarduteko beharrezkoa den edozein ekipamendu instalatu behar duten COWORKERek aldez aurretik helbide elektroniko honetan: agustinakzentroa@oarsoaldea.eus eskatu beharko dute dagokion baimenaren zain geratuz.

8.2.- COWORKERek ez dute baimenik inolako obrarik egiteko, ez altzariak aldatzeko, ez eta inolako aldaketarik egiteko ere, zentroko zuzendaritzaren baimenik gabe. Era berean, erabat debekatuta dago, baimenik gabe, telekomunikazioetako, antenetako edo beste elementu batzuetako kableak jartzea.

9.- Interneten erabilera

OARSOALDEAK Internetera sartzeko bi modalitate eskainiko ditu:



1. **WiFi sarbidea**, oro har COWORKER guztientzat eskuragarri.
2. **Kable bidezko sarbidea**, berariaz eskatzen dutenentzat eskuragarri.

Bi kasuetan, partekatutako baliabideak direnez, nahitaezkoa izango da erabiltzaile guztiek antibirus eguneratua izatea eta sarearen bidez partekatzen dituzten artxiboen erabilera egokiaren erantzule izatea.

10.- Instalazioak gaizki erabiltzea.

10.1 COWORKERen erantzukizuna izango da aretoan, altzarietan eta instalazioetan eragindako kalteak, gaizki erabiltzeagatik edo arduragabekeriak erabiltzeagatik sortzen badira.

10.2. Zentroa OARSOALDEAk kontratatutako garbiketa-zerbitzua egiten duen enpresak garbituko du, baina COWORKERei portaera egokia eskatuko zaie. Arduragabetasunaren kasuan, OARSOALDEAk horren arabera jokatzeko eskubidea izango du.

10.3.- Datuetarako telekomunikazio-lineak erabilera profesionaletara mugatzen dira, eta debekatuta dago erabilera profesionaletatik kanpoko edukiak edo legearen kontrakoak direnak deskargatzea.

10.4.- Espazioen erabilera amaitu ondoren, erabiltzailea dokumentuak, kafe katiluak, ur botilak, edalontziak eta abar garbi eta libre uzteaz arduratuko da.

11.- Larrialdi-plana.

AGUSTINAK ZENTROko COWORKERek zentroko segurtasun- eta larrialdi-neurriak bete beharko dituzte, bai eta OARSOALDEAko langileek edo OARSOALDEAk kontratatutako enpresek edo profesionalek zabaldutako eskakizunak eta gomendioak ere.

12.- Beste eskubide eta betebeharrak

12.1.- OARSOALDEA ez da COWORKERen ondasun pertsonalen erantzule egiten. OARSOALDEAk 0 solairuko armairu zerbitzua jartzen du erabiltzaileen eskura.



12.2.- OARSOALDEAK ez du bere gain hartzen ahaztutako dokumentaziorik, ekipamendurik edo inolako materialik.

12.3.- Lanpostuen erabilera nominala eta transferiezina da, eta tailerretako lanpostua eta hirugarrenek aldi berean erabiltzea bigarren pertsona bati lagatzea edo subrogatzea ez dago baimenduta (nahiz eta enpresa berekoak izan).

12.4.- AGUSTINAK ZENTROA enpresak eta coworkinga sustatzeko eta bultzatzeko gune gisa egokitu da, eta beraz, erabat debekatuta dago xede horrekin bat ez datozen jarduerak egitea. Lanpostuan garatzen den enpresa- edo lanbide-jarduerak dagozkion administrazio-baimenak dituen jarduera izan behar du, eta aplikagarria den ordenamendu juridikoarekin bat etorri behar du.

12.5.- COWORKERek irregulartasunak izanez gero, OARSOALDEAK horren arabera jokatzeko eskubidea izango du.

12.6.- AGUSTINAK ZENTROAren ezaugarriak kontuan hartuta (espazio gardenetan oinarritutako lanpostuetan oinarritzen da, eta ez du bereizketarik, isolamendu akustiko eta bisualik eta intimitatekorik), erabiltzaile bakoitzak beharrezko neurriak hartu beharko ditu bere datu pertsonalak babesteko eta hirugarrenen datu pertsonalak errespetatzeko. Beraz, AGUSTINAK ZENTROko COWORKERek ezin izango diete hirugarrenei jakinarazi, zentroko kide izan edo ez, datu pertsonalei buruzko legediari lotutako informazio, iruzkin edo komunikaziorik, ez eta gainerako COWORKERen jardueraren pribatutasunarekiko errespetua urratu ere. Kontratua sinatzeak berekin dakar Zentroan lortutako edozein informazio (entzumenekoa, bisual edo beste edozein motatakoa) isilpean gordetzeko betebeharra onartzea.

12.7.- AGUSTINAK ZENTROAren barruan COWORKERen irudi korporatiboko kartelak, erroteruak edo logotipoak jartzeko, Zentroko Zuzendaritzaren baimena beharko da.

12.8.- COWORKERek, dagokion coworking-kontratua iraungi ondoren, bezeroei, hornitzaileei, administrazio publikoei eta abarri helbide-aldaketa behar bezala eta arduraz jakinarazteko betebeharra dute, eta Zentroko Zuzendaritzak ahalmena izango du une horretatik aurrera korrespondentzia edo jakinarazpen oro itzultzeko edo baztertzeko.



13.- Lanerako espazioen erreserbak

13.1.- Lantokien erreserba Zentroko Zuzendaritzak sortuko duen plataformaren bidez egingo da, dataren, ordutegiaren eta gutxi gorabeherako pertsona-kopuruaren berri emanez. Plataforma horretan, eskuragarritasunaren berri emango zaie COWORKERei.

13.2.- Erreserben gehieneko iraupena eguneko 8 ordukoa izango da; hala ere, Zentroko Zuzendaritzari iraupen luzeagoko erreserbak egiteko baimena eskatu ahal izango zaio.

13.3.- Erreserbak neurrian egin beharko dira, gainerako erabiltzaileei espazioak gozatzea eragotzi gabe, eta zuhurtziaz, ez daitezen jarraian baliogabetu edo erabili gabe utzi.

13.4.- COWORKERek berehala ezeztatu beharko dituzte erreserbak, AGUSTINAK ZENTROko beste COWORKER batzuk erabili ahal izateko programatutako bilera egingo ez dela jakiten duten unean.

14.- Janariak eta edariak.

14.1.- Janarien eta edari beroen kontsumoa zentroak horretarako jarritako espazioetara mugatzen da. Ura edo antzeko edari hotzak lanpostuan kontsumitu ahal izango dira, betiere AGUSTINAK ZENTROAren gainerako erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez bazaie.

14.2.- Nolanahi ere, zentroa behar bezala garbi eduki beharko da, eta jan-edarien kontsumoaren ondoriozko zaborra horretarako prestatutako guneetan utzi beharko da.

15- Erabilera ona eta bizikidetza.

15.1.- COWORKERek konpromisoa eta betebeharra hartzen du instalazioak egoera ezin hobean erabiltzeko eta kontserbatzeko, eta instalazioak zentzuz eta egoki erabiltzeko, une bakoitzean zabaltzen diren jarraibideen arabera, COWORKERen ordena eta bizikidetza kaltetuak izan ez daitezen.



15.2.- COWORKERek behar bezalako arretaz erabiliko ditu instalazioak arriskuei, zaratei eta ordutegiari aurrea hartzeko, baita energia-kontsumoei, urari eta hondakinen kudeaketari dagokienez ere.

15.3- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea aplikatuz, ezin izango da eraikinean erre.

15.4.- COWORKERek ardura egokia hartu beharko dute, lan-ingurune atsegina, produktiboa eta segurua lortzeko.

16- Argazkiak edo bideo-grabazioak egitea

Eraikinaren barruan argazkiak eta/edo bideo-grabazioak egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio zentroko zuzendaritzari.

17.- Konfidentzialtasuna.

17.1.- Kontratua sinatzean, bi alderdiek konfidentzialtasun eta sekretu zorrotzena gordeko dute alderdiek eskura duten informazio guztiaren gainean.

17.2.- Bereziki, AGUSTINAK ZENTROAn kokatutako gainerako COWORKERen informazioari buruzko konfidentzialtasun eta errespeturik zorrotzena izatera behartzen dira, betiere horretarako erabilitako bitartekoa edo prozedura edozein dela ere, ahozko komunikazioa barne.

18.- Datuen babesa.

Oarsoaldeak, Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalen tratamendu-arduraduna den aldetik, lehiakortasuna sustatzeko programen kudeaketaren, enpresen garapenerako eta ekintzailatzarako laguntza/aholkularitzaren arloan datuak tratatzen ditu, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen arabera. Datu pertsonalak gaian eskumena duten Administrazio Publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie. Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko. Horretarako, jakinarazpen bat bidali beharko du Oarsoaldeko helbidera edo



dpo-dbo@oarsoaldea.eus helbide elektronikora, eta informazioa zabaldu beharko du www.oarsoaldea.eus gardentasun-atarian.

19.- Suntsiarazteko arrazoiak.

19.1.- Kontratua erabat suntsituta geratuko da ondoren aipatzen diren arrazoietakoa bat gertatzen bada:

- a) Bi alderdi kontratugileen adostasunez.
- b) Alderdietako batek bere betebeharrak ez betetzeagatik.
- c) Kontratua suntsiarazteko kontratuan jasotako edo zuzenbidean onartutako beste edozein arrazoiengatik.

19.2.- Nolanahi ere, alderdi kontratugileetako batek bere betebeharren bat betetzen ez badu, beste aldeak aukera izango du kontratua betetzeko eskatzeko edo kontratua suntsiarazteko, eta bi kasuetan kalte-galerengatik kalte-ordaina eskatu ahal izango du.

20.- Deuseztasun partziala.

Kontratuaren edozein klausula, itun eta/edo xedapenen deuseztasun partzialak eta/edo osoak ez du eraginik izango kontratuaren gainerako zatien baliozkotasunean. Aurrekoa gorabehera, kontratuaren klausularen, itunen eta/edo xedapenen bat deuseztatzeak arrazoiaren batean badago, aldeek konpromisoa hartzen dute klausula, itun eta/edo xedapen hori legezkotasunera egokitzeko, klausula, itun eta/edo xedapen horretan aurreikusitako xedeak eta helburuak bete daitezen, eta beharrezkoa izanez gero, kontratua aldatzeko konpromisoa hartzen dute. Aldaketa horrek egungo idazketa ordezkatzeko du.

21.- Erantzukizunak.

21.1.- OARSOALDEAK ez du inolako erantzukizunik (zibila, lanekoa, zerga-, zigor-arlokoa, administrazio-arlokoa, merkataritza-arlokoa eta abar) COWORKERek beren instalazioetan egiten duten jardueragatik; izan ere, OARSOALDEAK espazio eta zerbitzu batzuk baino ez ditu jartzen haien esku, beren jarduera garatu ahal izateko, eta beraz, bakoitzaren jarduera OARSOALDEAK garatzen duenetik bereizia da.



21.2.- COWORKERek eta/edo bere langileek ez dute inolako mendekotasun-harremanik OARSOALDEArekiko, eta beraz, OARSOALDEA ez da erantzule egingo, ez zuzenean ez subsidiarioki, kalte pertsonal edo moralengatik, ez eta COWORKERek izan ditzakeen edozein administrazio-betebehar edo bestelako betebehar ez betetzeagatik ere.

21.3.- COWORKERek Erantzukizun Zibileko Aseguru bat sinatu beharko du, 300.000,00 eurokoa, eta horren kopia OARSOALDEAri eman beharko zaio, gehienez ere hamabost eguneko epean, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita.

21.4.- COWORKERaren jabetzako ekipoak, erremintak edo materialak, egoki baderitzo, COWORKERek berak aseguratu beharko ditu.

22.- Eraikinaren gastuak.

OARSOALDEAren kontura izango dira eraikinari dagozkion gastu guztiak, besteak beste: elektrizitatea, ura, garbiketa, aire girotua, su-itxalgailuen mantentzea, alarma, igogailua eta antzekoak. Bere kontura izango dira, halaber, eraikinean instalatutako altzarien eta makinaren mantentze-lanak.

23.- Eskubideei uko egitea.

Alderdietako batek kontratuaren arabera legokiekeen eskubideren bat baliatzen ez badu, ez da ulertuko kontratuari uko egiten diola.

24.- Lagatzeko debekua. Erabilera pertsonala.

24.1.- Berariaz debekatzen da alderdi bakoitzaren kontratu-posizio osoa edo zati bat hirugarrenei lagatzea. Ez da ulertuko kontratuaren lagapena dagoenik, baimendutako berritze subjektiboa baizik, COWORKERek pertsona bakarreko merkataritza-sozietate bat eratzea.

24.2.- COWORKERa da OARSOALDEAk eskaintzen dituen zerbitzuen azken hartzailea, eta ondorioz, erabat debekatuta dago zerbitzu horiek COWORKERa ez diren hirugarrenen onurarako erabiltzea.

	INPRIMAKIA: IM-C02/ELGE-AZ/3.1	Berrazt.: 0
	AGUSTINAK ZENTROKO ARAUDIA EGOILIARRENTZAT	Data: 2024/10/21 Or.:18 etik.18



24.3.- Baimendutako COWORKERak eta haren langileek bakarrik erabili ahal izango dituzte beren instalazioak, betiere lan-harremana zentroko zuzendaritzaren iritziz nahikoa den dokumentu baten bidez justifikatzen badute.

24.4.- COWORKER bakoitzak eta bere enplegatuek gehienez hiru plaza bete ahal izango dituzte. Hala ere, Oarsoaldeak muga horren salbuespenak egin ahal izango ditu, hainbat arrazoiengatik hala irizten badio.

25.- Zerbitzuak ustekabeen edo ezinbestez etetea.

OARSOALDEAK ez du erantzukizunik izango OARSOALDEArekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik (ustekabeko kasuak, ezinbesteko kasuak, etab.) zerbitzuak eteten badira, baina COWORKERek ez dute kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik kasu horietan.

26.- Foruari men egitea.

Kontratua interpretatzean edo betetzean sortzen diren edo sor daitezkeen auzigai guztiak Gipuzkoako epaitegi eta auzitegien esku uztea erabaki dute aldeek, eta berariaz uko egitea legokiekeen beste edozein foru eta jurisdikziori.